



NEGOZIAZIOA NOIZKO?

Atzo, maiatzak 18, Isabel Gabriel Bellido Justizia Administrazioako Zuzendariaren telefono deia jaso zuen LABek. Hauxe da sindikatu honek zuzendari berri horrekin duen lehenengo kontaktua, apirilaren 21ean izendatu zutenez geroztik.

Elkarrizketaren mamia ondoko hauetan laburbildu daiteke:

- Miren Gallastegui sailburuordeak maiatzaren 29rako deitutako bilera ez da izango negoziatio mahaietakoa, baizik eta “nolabaiteko hastea”, “kontaktu berri bat”, Gabriel andrearen esanetan.
- 2012ko APARTEKO LANSARIA. Justizia Sailaren asmoa da ekainaren/uztailaren inguruan egoera erregularizatzea. Hau da, eparen bidez kobratu ez duten langileei falta zaien paga zatia ordaintzea.

Lehendabiziko kontuari lotsagabekeria galanta deritzogu; hala eta guztiz ere, ezin esan zur eta lur utzi gaituenik. Aste honetako astelehenean bertan bidali genizuen informazio orrian esan genuen: **“Ekipo berri honek ez du aurrera egiten, zenbait aholkulari izendatu duten arren. LABen daukagun sentsazioa: martxora itzuli gara, lehendabiziz deitu gintuzten garaira.”** eta **“... bi hilabete geroago toki berean egoteko.”** Beraz, geneuzkan susmoak ez zirela hutsalak berresten dugu orain, bilerara joan barik.

Autonomia erkidegoko hauteskundeak gertatu zirenetik 8 hilabetera ez bada negoziatzeko aroa, zertara joango gara sindikatuok? Zuzendaria ezagutzera, agian? LABekooi bururatsen zaigun politena da sail honek ez daukala ez ganorarik.

Aparteko lansariari dagokionez, ordaindu ez izateagatik sailburuordeak aurreko sailari jokabide zatarra leporatu zion arren martxoko batzarrean, hauxe da errealitate gordina: ordainduko digute ez daukatelako bestelako erremediorik, epaiek beharturik. **Hortaz, non geratu ote zaie borondate ona? Sententziek jasotzen ez dituzten abenduko 3 egun ziztrinak ordaintzeko gogorik ez daukate-eta.**

Bukatze aldera, ekain/uztail bueltan egingo duten erregularizazioa honelakoa izango omen da: urtarrilera aurreratutako 2017ko ekaineko aparteko lansariaren aurrerakina deskontatzea; eta oraindik kobratu gabe daukagun 2012ko apartekoaren gutxi gorabeherako erdia jasotzea. Baliteke falta diren abenduko 3 egun horiek 2017/2018an kobratzea, Euskal Administrazioako gainerako langileek falta zaien zatia ustez jasoko duten sasoian, hain zuzen.